

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2012ko urria • 272. alea



**BIDETXIOR
KONTSUMO TALDEA
Ekoizleak eta herritarrak
elkar hartuta**

BARRURA BEGIRATZEKO LEIHOAK

Antolatzailea



Soroluzeko Udala

Urriak 31, eguaztena
Zinean 22:15ean



MABE
ILEAPAINDEGIA

**ESTETIKA
SOLARIUM**

Errebal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

aras

DIN arauak jarraituz
eta zehaztasun handiz egindako torniluak

T. 943 75 17 36 / 18 03 Industrialdea 20 - 21
F. 943 75 22 95 50 Posta Kutxatila
20590 Sorluze

**Kontulan
Aholkularitza S.L.**

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarreak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Telefonoa: 943 75 17 82 Faxoa: 943 75 01 82

20590 Sorluze
GIPUZKOA

Javier Alberdi

EUSKO LABEL

Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carnicería
autorizada

Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Sorluze

**MARI MAR
HARATEGIA**

*Gurean
Euskal Herriko
produktuak!*

Tel. 934 75 24 02
Santa Ana kalea, 4 Sorluze

**Soroluzeko
Kooperatiba
Elkartea**

1910etik

943 75 13 45

Sagar-konpota gatzarekin



Egoitz Unamuno

Aritz Arizaga

Kaixo Aritz, Goiz baten esnia eta galletak erostera jua nintzuan Kooperatibara. Hartu biharrekuak hartu eta kajara heldu nintzuan karteria etara najuan, baina zabaldu eta zentimorik ez. Eskerrak kreditu-txartela najakan poltzikuan eta hauraxe emon najotsan eskura. Pasatu jua haura be eta ezetz, errorea markatzen zebala. Estutu nintzuan orduan. Kajan zeguanak lagatzeko esan jostan, ezaguna nintzala eta pagatuko notsala hurrengo baten. Momentu horretan aldamenian zeguan ezagun bat hurreratu zuan eta esan jostan: "neuk lagako dotsut? zenbat bihar dozu?". Hurrengo goizian esnia gailatekin armozatu najuan eta gustora bajatu nintzuan kalera. Gazte talde bat ikusi najuan kalia bueltaka, megafono bat hartuta bankutik bankura "bankeruak lapurrak!" eta "kapitalismua kanpora!" diharka. Jentia ez zuan asko hurreratzen, badaezpada, baina banatzen jittuen "panfletuak" aurpegi onakin hartzen jittuela pentsatu jatan. Jentiari somatu najotsan halako sinpatia edo enpatia berezi bat, oin urtebete somatzen ez nebana.

"Hain gatzixa emoten daben egoera honetan jentia bere onena etarako balejok..."

Greba eguna etorri zuan gero. Goizeko hamaikak, dana itxita bai, baina kalia animarik bez. "Piketien bildurrez geratzen dok jentia etxian!" jiñuek batzuek. "Jentia etxok urtetzen protestatzeko bildurrez dagualako!" jiñuek beste batzuek.

Gaur pobrezia eguna dok eta datu batzuk goguan geratu jatazik; EAeko herritarren %1,4a dok BPGren (Barne Produktu Gordina) %44aren jabe, Hego Euskal Herriko umien %20a pobrezia arriskuan dagok, egunero etxetik botatzen jittuek 15 familia EAEn, Bilbon ehunetik gora persona bizi dittuk kalia...

Kontsumo taldian esan jostek sagar-konpota egitteko sagarrari gatza bota bihar jakola, gatza botata sagarraren glukosak urtetzen dabela. Hortik pentsatu juat beharbada hain gatzixa emoten daben egoera honetan jentia bere onena etarako balejok... Eh Aritz?

Aspaldiko Egoitz!
Ez dittuk ez garai onak gutako gehixenondako. Hik esaten dittuan horrek, EAeko herritarren ehuneko gutxiengo hori, ez dok ba horren gaizki be egongo. Ingurukuen egoera gordiñen aurrian hor egongo dittuk, pentsatzen berek ez dakit nungo inbersiñuan dirua galdu dabela eta hau eta beste.

Noizian behin, eguerdi edo gau partian telebista piztia besterik ez dok bihar izaten han eta hemen itzeleko iruzurtean diru kantidade haundixak lapurtu dittuztenak zela errugabe jo eta kalia gelditzen diran ikusteko. Gainera poltsikuan edo munduko beste puntan gordeta dauken lapurtutako hori bueltatzerik be ez jotsek eskatzen.

Gero ordia, jateko nahikua ez daukana sartzen juek kartzelara ahorako zeoze lapurtzarren. Edo etxetik bialtzen dittuenak hipotekia pagau ezinda darelako, ez jotsek iñungo laguntzarik emoten. Pentsatzen jatak kaleratze horrek agintzen dittuanak argi euki biharko dabela, derrigor, bera ez dabela sekula etxetik botako, dirua besterik ez daukalako edo izangok. Ze bestela ez juat imajinatzen iñor egon leikenik norbait bere etxetik bota eta kale gorrixan lagatzeko bihotzik dakanik.

"Geu hasi biharko gaittuk gauzak aldatzen, gauza txikixak izanda be zeoze lortzia egongo dok eta!"

Azken egunotan, gainera, politiko mordo bat jabizik hauteskundiak dirala eta problema guztiak konponduko ditzuztela esaten. Arpegixa bihar dok gero! Zela engañatzen gaittuen, edo saiatzen diran behintzat. Pobrezian arazua ez dok politikuena (bakarrik); ez juek berek konponduko, horrek egitten diharduen gauza bakarria motozerria erabiltzia dok. Gaur ospitalak kentzia dala, bixar langile publikuak lan gehixago soldata gutxiagon truke egin biharko dabela, etzi gaztiak ikasi ahal izateko ez dala laguntzarik egongo... Honek bajakixek etxerik barik edo zer jatekorik barik ez dirala geldittuko.

Ez jakixat nun egongo dan edo zein izango dan honen konponbidia. Baina geu hasi biharko gaittuk gauzak aldatzen, gauza txikixak izanda be zeoze lortzia egongo dok eta!

Ondo izan Egoitz!

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com
Erredakzioa: Leire Iturbe eta Egoitz Unamuno **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta L. Iturbe **Publizitatea:** Egoitz Unamuno **Diseinua:** Iñigo Uribe-txebarria **Maketazioa:** Iñigo Uribe-txebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



Gutunak

Debaldeako LAB I-26 greba orokorra, eta gero zer?

LAB

Irailaren 26an milaka langile eta herritarrek ozen eskatu genuen Madrilek inposatutako erreformak Euskal Herrian ez aplikatzea. Argi agertu zen diru publikotik 100.000 miloi euro bankuei oparitutako ez dien eta herritarren eskubideak zainduko dituen eredu berri baten beharra.

LABek Euskal Herrian irteera propioa bilatzearen alde egiten du apustu. Eta horretarako hiru erabaki hartu behar dira: Gobernu espainolaren erabakiak ez aplikatzea, Euskal Herriko instituzioen aurrekontuetan murrizketak bertan behera lagatzea eta krisiari aurre egiteko plan instituzional integrala aurkeztea.

Badaukagu bide berri horri ekiteko besteko masa sozial kritikoa. Gure instituzioak "derrigorrezkoa delako aplikatzen dut" esatetik, "ezin dut aplikatu Euskal Herriko gizarteak baztertu duelako" esatera pasaraziko dituen. Falta dena, hau gauzatzeko prest egongo diren gobernuak dira eta horretarako ezinbestekoa da horiek baldintzatzeko indarra izango duen mugimendu soziala. Guztion artean lortuko dugu, ekin alternatibari!

Soraluzeko Lau urte gehiago

PSE-EE

Euskal Sozialistok Estatutuaren, Autogobernuaren eta Kontzertu Ekonomikoaren defentsan jarraituko dugu, Euskadiren ongizate eta garapenerako oinarritzko tresnak diren uste osoa daukagulako.

Ez dugu nahi Bilduren "Independentzia", Espainian eta European jokoan kanpo uzten gaituena; eta ezta ere EAJ-ren "Euskadi Europako nazioa", eurek jakin badakiten bezala, eta horrela esan du Europak, ezinezkoa dena.

Lau urte gehiago nahi ditugu; inor bazterrean ez uzteko; gastu soziala arrazionalizatuz eta, beharrezkoa den neurrian, gehituz, eta iruzurra ekiditeko neurriak hartuz, enpleguaren alde borroka egiteko; zerga-erreforma bultzatzeko, gehiago dutenek gehiago ordain dezaten; zerga-iruzurraren aurka borrokatzeko; koordainketari eta gure nagusiek euren botikak ordaintzeari ezetz esaten jarraitzeko; ospitalak zabaltzeko itxi beharrean; gure ikasleei diru-laguntzak gehitzen jarraitzeko; gure gazteen hezkuntzan desberdintasunak ez sortzeko tasak igoz; gogoak ematen digun bezala euskaldun sentitzeko.

Guk nahi duguna da Euskadi askotariko, progresista, zuzen eta solidario bat.

Soraluzeko EAJk enplegua sustatzeko plana egiteko galdatuko dio alkateari

EAJ/PNV

Nork ez du ezagutzen krisiak jota lanik gabe geratu den inor? Gure herriko datuak aztertuz; Soraluzen % 16ko langabezi-tasa daukagu, Debarrenen altuena. Abuztuko datuen arabera Soraluzen 321 langabetu daude. Horieta-tik 161 gizonezko eta 160 emakumezko. Aurreko urteko abuztuarekin alderatuz 21 pertsona gehiago. Gipuzkoan langabezi tasa % 12,5an dago eta EAEn % 15ean. Hauek dira datuak, zoritxarrez, errealitate gordina. Bien bitartean, Soraluzeko udala kudeatzen duen Bilduk zer egin du egoera honen aurrean? Ezer gutxi orain arte, egia da 5 pertsona kontratatu direla aldi baterako baina hau ez da gauza berria. Betidanik, udal mailan egin izan da, eta kontutan eduki behar da aldi baterako dela, 6 hilabeterako bakarrik. Egoeraren larritasuna ikusita neurri zehatzak hartu beharra dago. Beraiek dioten bezala soluzio argiak. Gai honen ardura alkateak dauka eta espreski eskatzen diogu lehen bait lehen plan berezi bat aurkeztu dezan langabeziari aurre egiteko. Informazio gehiago www.soraluzepnv.com

Bittartetik



Zorakeria ote?

Etxetik irteten naiz goizean eta, betiko moduan, ikusten ditut umeak eskolara bidean, batzuk izugarritzko gogoekin eta beste batzuk bekarrak gainetik ezin kenduta. Kalea zeharkatu eta egunero ikusten dudana jubilatua agurtzen dut. Gaur kalea biziago sumatu dut... bai, manifestazio eguna delako! Jende asko dabil autobusean gora eta behera. Hau bai jaia... gaur egun handia izango da. Askok begirada altxatzen dute zerura eta errealitatek ametsetatik baino hurbilago daudela sumatzen dute.

Hotzikara batez esnatu naiz gaur baina, ametsetan al nengoen? Ez, ez naiz Bartzelonan bizi, hau Soraluze da eta egunerokotasuna da. Gezurra badirudi ere, ez da hain ezberdina arnasten dena, ezta?

Batzuek Bartzelona bezalako hiri garrantzitsua Soraluze deritzon Debarrenen zulo batengatik aldatzea zorakeria dela esaten dute. Bada, esango didazu zorakeria ote den Balmes kaleko auto-ilara itogarriak, Kalebarrenen izaten diren ataskuengatik aldatzea. Edo nahiago al duzu berdezjartzen hiru minutu tardatzen duen semaforoarekin gelditzea, Karakaterekin baino?

Bai, aitortzen dut, hiritarra naiz eta izugarri gustatzen zait autobusen planoari begira, artelan bat dela pentsatzen duten pertsonen inguraturik egotea. Baina euskara ikasten urtebete eman ondoren, nire ustez artea, hiru urteko ume batek euskaraz berba egiten mila buelta ematen dizkidala ikustea da.

Eta hau guztia urtebete egin berri herri honetan! Beraz, ikasteko eta deskubritzeko geratzen zaizkidan hainbeste konturekin, Bartzelona izeneko hiria Soraluze deritzon herri batengatik aldatzea ez dut uste zorakeria denik.

“Antzinako artzainen hileta erritoen aztarnak dira mendigainekoak”

Iraia Agirrezabala

Debanatura Elkarteko dinamizatzailea



Ibilaldian azalpenak emateaz arduratuko da Iraia debarra.

Karakate – Irukurutzeta mendilerroan dauden trikuharri eta tumuluak ezagutarazteko bisita gidatuak antolatu dituzte Debegeak eta Debanatura Elkartek. Iraia Agirrezabala debarrada ibilaldia azaltzeaz arduratzen dena. Bere berbetan, Soroluzeko mendigaina “oso aberatsa da” megalito guneei dagokionez. Monumentu hauek antzinako artzain kulturaren hileta erritoei lotuta omen daude eta hain zuzen, aztarna hauek ikertuz, gure arbasoen ohitura eta tradizioetan sakontzeko aukera eskaini nahi zaie bisitariei. Azaroaren 11n eta 25ean egingo dituzte hurrengo irteerak. Izena ematea 943 19 11 72 telefonoan edo debanatura@hotmail.com helbidean egin daiteke.

Nondik sortu zen “Dolmenen ibilbidea” egiteko ideia?

Joxe Migel Barandiaranek “Trikuharrien ibilbidea” izenaz batailatu zuen 1920. urtean Karakate – Irukurutzeta mendilerroa. Eskualde mailan ibilbideak duen balio historikoa ezagutarazteko garatu genuen proiektua.

“Bisitariek neolito aroko artzai-kulturara egingo dute salto”

Zer da bisitariek bertan ikusi eta eza-gutuko dutena?

Karakatetik abiatuta, artzainen eta nomaden aztarnen atzetik egingo dute txangoa. Ibilbidea, trikuharri eta tumuluak osatzen dute eta hauen jatorriari begiratuz, neolito aroko artzai-kulturara egingo dugu salto.

“Oso distantzia laburrean megalito kantitate handia dago”

Zer dira bada, dolmen, trikuharri eta tumuluak?

Dolmen hitza alemana da eta “harrizko mahaia” esan nahi du. Trikuharriak, neolito kulturako megalitoak dira. “Mega” aurreziak handia esan nahi du eta “litok” berriz, harria. Dolmen eta trikuharri berbak monumentu berdina izendatzeko erabiltzen dira. Egitura aldetik, trikuharriek ganbera bat dute harri pilen erdian. Tumuluak berriz, trikuharriaren harri pila da, eta ez du ganberarik.

Zein ezaugarri dituzte Soroluzeko monumentuek?

Duela 4.000 urte ingurukoak dira. Hiltzen ziren artzainen gorpuak lurperatzeko

erabiltzen zituzten. Oso distantzia laburrean megalito kantitate handia dago Karakate – Irukurutzeta mendilerroan. Barandiaranek aurrena eta Aranzadi Zientzia Elkartek gero, hildakoekin ehorzten zituzten hainbat material topatu dituzte monumentuetan; zeramika zati bat edota harrizko tresnak esaterako.

Azternek soroluzetarrekin loturirik badute?

Joxe Migel Barandiaranek bazuen hipotesi bat. Megalitoak orduko pertsonen bizilekuen ondoan kokatuta zeuden bere ustez. Hori dela eta, azaldutako arrastoak soroluzetarren eta inguruko herritarren arbasoenak direla esan daiteke.

Hildakoekin ehorzten zituzten harrizko tresnak topatu dituzte

Animatu herritarrak azaroko irteeretan parte hartzera!

Hiru ordutan egin daitekeen irteera errea eta zirrargarria da. Emango ditugun azalpenekin, horren sarri bisitatzen duten inguruak duen balio historikoaz jabetzeko aukera izango dute.



Hnos. BENITO ANAIK



Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26 , 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Abian da "Beldur Barik" lehiaketa



Berdinsareak "Beldur Barik" lehiaketa martxan jarri du hirugarren urtez. Soraluzetik aurkezten diren proposamen onenak sarituko ditu, bere aldetik, udaleko Parekidetasun Sailak. Lehiaketa 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zu-

zenduta dago eta lanek, ezinbestean, "beldur barik" bizitzeko jarrera erakutsi behar dute. Emakumeen aurkako indarkeria gaitzesten duen adierazpen artistikoak onartuko dituzte, beti ere bideo formatuan aurkeztuta: film laburra, bideo-klipa edo lipduba esaterako.

Sariak eta epeak:

Berdinsareak 1000 euroko dirusaria eskainiko die "Beldur barik" bi proposamenik onenei. Ikusleek goraipaturako lanak 300 euro jasoko ditu. Lanak urriaren 31a baino lehen bidali behar dira jarrera@beldurbarik.org helbidera.

Soraluzetik bidalitako proposamenik onenak berriz 200 euroekin sarituko ditu udalak. Hauek azaroaren 20a baino lehen bidali beharko dira berdintasuna@soraluze.net helbidera.

Hileko puntua



Ixa Rodriguez "El conquistador del fin del mundo"-n

ETB2k martxan jartzen duen 9. edizioan hartuko du parte. Aurreko barixakuan abiatu zen Patagoniara (Argentina) eta finalera heltzea lortu ezker, berrogei egun emango ditu bertan. Afizioz boxealaria da Rodriguez, ofizioz, kirol jardueren begiralea. Fisiko zein psikikoki "indartsu" dagoelako hartu dutela eta 20.000 euroko saria lortze bidean, "emakumeen babes" bilatuko duela adierazi zion Pil-pileani. Otsailean hasiko dira lehiaketako saioak emititzen. Informazio gehiago: [P.com](http://p.com)

FotoNotizia



Iturria: Debegesa

Garbitu ona ibaiari

Hogeita bost herritar inguruk parte hartu zuten joan zen domekan Debegesak deituta herrian egin zen ibai garbiketean. Guraso eta seme-alabez osatutako taldeak bi orduz jardun zuen ibaitik hondakinak ateratzen. Plastikozko botila eta bilgarriak, lata eta burdin pusketak, egur zatiak, pilak eta alfonbra bat ere atera zuten esaterako.

Motzean

"Zukgua" prozesua aurkeztu dute

Urriaren 5ean herriko hainbat gazte batu ziren "gazte antolakunde berria osatzeko prozesuaren aurkezpena. Herrian eta Euskal Herrian "independentismoa eta sozialismoa" bultzatuko dituen antolakundea eratzeko jarraituko duten prozesuaren inguruko azalpenak eman zituzten. Gazteei hausnarketarako eta parte hartzeko gunea eskaintzea izango da Zukgua prozesuaren helburuetako bat. Horregatik, herriko gazteei dei egin diete parte hartzeko. Aurkezpenaren ostean afora-merienda egin zuten Gaztetxean Peska eta Huekoren kantuekin girotuta. Bideoak: [P.com](http://p.com)



SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea Tel. 943 75 16 46 • 639 179 696



MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Balategieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Baserrietako hirigintza arauak aldatzeko eskaera

Urriaren 9an batu zen Bilduko Udal Gobernua herriko baserriarrek. Bizilagunen eskaeren artean, mendi-bideak garbitzea, Ezoziko parkea txukuntzea, ermitako losak konpontzea eta suteak emendatzeko erremintak erostea aipatu zituzten. Horrekin batera, adostasun handia izan zuen baserrietako hirigintza arauak aldatzeko eskaerak. Udalak bere aldetik, "kostu handiko tramiteak" direla baina urtea bukatu aurretik "arauok aldatzeko prozesua hasteko asmoa" duela erantzun zien.



Sakabanaketa politika bizipenetatik kontatuta

Herrira Bilguneak mahaingurua antolatu zuen urriaren 2an, "Euskal Preso Politikoei ezartzen zaien sakabanaketa politikak dituen ondorioak aztertze eta kaleratzeko". Berbaldean Peio Etxeberriak eta Koldo Kareagak (Euskal Preso Politiko ohiak), Luis Mari Herizek (Istripuz hildako Asier Herizen aita) eta Mikel Argaratek (istripua jasandakoa) jardun zuten hizlari. Bakoitzak bere esperientzia kontatu zuen eta aho batez aldarrikatu zuten kartzela politikaren aldatu beharra.



Soraluzek enplegu-mahai propioa izango du bailarako planean

Debabarreneko herrietan dagoen langabeziaren arazoari aurre egiteko asmoz bailara mailako Enplegu Plana jarri du martxan Debegesak. Eibar, Elgoibar, Mendaro, Soraluze, Deba eta Mutrikuko udalek parte hartuko dute planean. Soraluzek bere enplegu-mahai propioa izango du gainerako herriek baino langabezi-tasa handiagoa izan eta udalak hala izan dadin proposatu duelako.

Urriaren 5ean egin zuten lehenengo bilera industria arloko enprekin eta urriaren 24an, 18:30etan udaletzean, enplegu-mahaiaren bilera egingo dute herriko hainbat eragilerekin. Bileran kezka eta ekarpenak jaso nahi dituzte Enplegu Planean planteatuko diren ildoei integratu ahal izateko.

Ordainketa-etena GOLen

GOL enpresako langileek eguaztenean jakin zuten ALFA talde osoan ordainketa-etena izango dela hilabete honetatik aurrera.

Goleko langileek batzarra egin zuten eguenean eta lanean jarraitzea erabaki zuten.

Presoen gaineko mozioa

Gaixotasun larriak dituzten presoak aske lagatzeko eskatzen duen mozioa onartu zuen udalbatzarrak (Bildu eta EAJren aldeko botuekin), urriaren 8an egindako bilkuran. Madrilgo Barne Ministeritzari eta Kartzela Zaintzako Epaileari bideratuko dio udalak eskaera.


Iturria: Debegesa



Urriaren industria arloko ordezkariekin egindako bilera.

Legebiltzarrerako hauteskundeak domekan izango dira

Goizeko 09:00etan zabalduko dute hautesleak kiroldedean eta arratsaldeko 20:00ak artean izango da botoa emateko aukera. Azken bi asteotan, hauteskunde kanpaina hainbat ekitaldi antolatu dituzte herrian ordezkariak duten alderdiek. EAJK Maria Eugenia Arrizabalagaren hitzaldia antolatu zuen, PSEEk larrosa banaketa, eta EH Bilduk ekitaldia egingo du Zubi Nagusian. Gainera, bi soraluzetar aurkezten dira hauteskundeotan, Patricia Borinaga PSE-EEko zerrendetan eta Mikel Santiago EH Bildutik "Justizia Sozialeko" sailburu izateko.

Domekan jarraipen berezia: 



Joan zen urteko udal eta foru hauteskundeetako irudia.



ARRANO
tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera



JUAN MARI
ARRANDEGIA

943 75 24 40
MERKATU PLAZA

ESKERRIK ASKO PLAZENTZARREI
GUGAN IZANDAKO KONFIANTZAGATIK!

Bertan ekoiztu eta bertan jan

Herritar eta ekoizle batzuk elkar hartu eta Bidetxior Kontsumo Taldea sortu dute herrian. Hainbat produktu kontsumitzen dituzte salmenta zuzenaren bitartez, herrian ekoiztutakoak eta biologikoak.

Hogeitabi herritarrek eta lau ekoizlek osatzen dute Bidetxior kontsumo taldea. Sasoiari sasoiko barazkiak, ogia, mermeladak, arrautzak, txerriak eta garagardea dira taldean kontsumitzen dituzten produktuak. Horieta, barazkien saskia, ogia eta arrautzak bakarrik dira asterokoak, eta gainerakoak hilean behin hartzekoak. Kide bakoitzak bere beharren arabera zehazten du kontsumoa (otarre osoa edo erdia edo hileroko produktuak), eta hala, hileroko ordaindu beharreko kuota finkatzen dute.

Bidetxiorreko herritarren helburua elikaduraren kontrola berreskuratzea da

Elikaduraren kontrola berreskuratzea helburu

Bidetxiorreko kideen helburua argia da, elikaduraren kontrola berreskuratzea. Zer jan nahi duten erabakitzea, zeinek, non, zela eta zein baldintzetan ekoiztuak diren jakinda. Hori dela eta, talde gisara modu biologikoan ekoiztutako elikagaiak bakarrik kontsumitzen dituzte. Kontsumo zuzena antolatzearekin batera "gaur eguneko ohiko kontsumo sistemarekin kritiko izan nahi dugu. Batetik merkatalgune handiek herrietako merkaturak suntsitzen dutelako eta bestetik herrietako merkaturak askok banaketa sare handien produktuak saltzen dituztelako. Etorrizuneko bidea herrian herrikoa eta ekologikoa erosi ahal izatea da".



Bidetxiorrek ekainean egin zuen lehen banaketa.

SORRERA

Joan zen urteko Gaztañerre Azokaren bueltan eskainitako hitzaldi bat izan zen Bidetxiorren sorreraren abiapuntua. Herritarrek eta herriko ekoizleek elkarrekin egin zezaketen bidearen berri eman zuen bertan EHNE nekazarien sindikatuko Pedro Alberdik eta aurrez horretan pentsatzen hasita zegoen herritar talde baten kontsumo taldea osatzeko lanari ekin zioten. Hilabeteotan taldearen funtzionamendua adosteko hainbat bilera egin ostean, martxan da taldea.

DATUAK

- **10etik 9 kanpokoak**
EHNEren datuen arabera, Euskal Herrian kontsumitzen diren hamar barazkitik bederatzi kanpotik ekarritakoak dira.
- EHNEk eta Biolur nekazaritza ekologikorako elkarteak elkarlanean Gipuzkoan abiarazi zuten Basherry mugimenduaren barruan 30 kontsumo talde baino gehiago sortu dira azkenengo bost urteotan.
- Inguruko herrietan kontsumo taldeak sortu dira: Elgoibarren, Eibarren, Bergaran, Oñatin, Arrasaten.

Kontsumo taldea ez da soilik merkaturatze eredu bat, filosofia oso bat du atzean. "Baserritarraren eta kontsumitzaileen arteko gertutasunari esker ekoizleen arteko konfidantza eta konpromisoa lortzen da". Ekoizleek euren aldetik ekoizpena modu ekologikoan egiteko konpromisoa hartzen dute eta kontsumitzaileek berriz urtebetean kontsumitzeko. Modu horretara baserritarrak urteko planifikazio zehatzagoa egiteko aukera du eta salmenta zuzenari esker irabazi duinagoak izateko; kontsumitzaileak berriz, konfidantzazko produktuak prezio onean lortzen ditu.

"Etorkizuneko bidea herrian herrikoa eta ekologikoa erosi ahal izatea da"

Auzolana da elkarren arteko harremanak estutzeko erabili nahi duten bidea. Esolak sartzea, belar txarrak ateratzea, intxaurrek eta sagarrak batzea... Urtean zehar horietako lan batzuk elkarrekin eginez baserritarraren eguneroko jarduna eta nekazaritza ezagutzera dute helburu.

Elikaduraz kontzientzia hartzeko beharra
Bidetxiorreko kideek hilero egiten dituzten taldeko bileretan elikadurarekin zerikusia duten gaien inguruko informazioa trukatzeko tartea hartzen dute. Hala ere, herritarren artean kon-



Taldekieak astelehenean egin zuten banaketaren ostean.

"beste talde bat sortzea posible izan daiteke jendeak izena ematen jarraitzen badu"

tzientziarioa zabaltzea ere badu helburutzat taldeak. Agroekologia mugimendua, bertakoa eta sasikoia salmenta zuzenaren bitartez kontsumitzaileen garrantzia, sukaldaritzaren inguruko kultura aberatsaren transmisioa egiteko beharra, elikadura subirautea garapen jasangarriko oinarritzat finkatzeko beharra... Etor-

kizunean gai horiek eta beste hainbat mezu gizarteratzeko ekimenak antolatzen jarraitzeko asmoa dute. Hain zuzen, taldea eta bere filosofia ikusi dadin egiten dute asteroko banaketa Zubi Nagusian.

Azaroan Gaztañerre azokaren bueltan sortzen den giroa aprobetxatuta, Bidetxiorren aurkezpena egiteko asmoa dute eta azokan bertan informazioa banatzeko ere bai. Taldeak kide kopurua mugatzea erabaki du eta dagoeneko itxaron-zerrendan izena emanda daude herritar batzuk. Uste dute herrian antzeko beste talde bat sortzea posible izan daitekeela, jendeak izena ematen jarraitzen badu.

Kontsumitzailea eta ekoizlea

David Lindemann
Kontsumitzailea

Lagun artean sare informala geneukan elikagai ekologikoak lortzeko. Joan zen urtean herritik kanpora zeuden antzeko esperientzien berri jaso genuen eta oso interesgarria iruditu zitzaizgun. Orain kontsumo taldea sortzearekin sarea formalagoa eta iraunkorragoa da. Nik neuk ortua daukat baina beste gauza batzuk taldean ez bada, herrian ezin ditut lortu.

"Gero eta jende gehiagok du kontsumo eredia aldatzeko interesa"

Taldearen esperientzia gustatu zait, gero eta jende gehiago ikusten dudalako interesatuta kontsumo eredia aldatzeko.



Ezoz Arizaga
Ekoizlea

Laguntza handia da astean produkzio kopuru baten salmenta segurua izatea. Kalera bajatu eta salduko duzula jakitea gauza handia da. Azokara bajatutakoan ez dakizu salduko duzun ala ez.

"Kontsumo taldean sartu ginenetik gure produkzioa ekologikoagoa izan dadin aldaketak egin ditugu"

Kontsumo taldean sartu ginenetik gure produkzioa ekologikoagoa izan dadin aldaketak egin ditugu. Orain ogi ekologikoa egiten dugu, integrala eta oluarekin egindakoa. Hazi ekologikoak ekarri eta landare gehienak ere etxean jasotzen ditut. Lurraren azterketak egiten eta ziurtagiri ekologikoa lortzeko prozesuan ere sartuta gaude Biolurrekin.

Herrian baserriko produktuak eta janari ekologikoak erosteko aukera gero eta handiagoa da. Sortu berri den Bidetxior kontsumo taldeak esaterako, bertakoa eta modu biologikoan ekoiztutakoa kontsumitzeko mezua zabaldu nahi du.

Zenbaterainoko garrantzia ematen diozu elikagaien jatorriari eta kalitateari?



Mariasun Alberdi

Guk geure ortuko berdurak jaten ditugu. Elikagaiak erosteko orduan ez diot diruari begiratzen. Oporretan ez naiz oso urrin joaten eta janaria erosten gastatu egin behar dela pentsatzen dut.



Pilar Macho

Kimiko barik hazitako berdurak nahiago. Hemen ez baina jaioterrian badaukagu ortua. Animaliak non hazi dituzten eta zer jaten duten jakitea ere gustatzen zait. Elikatzeko produktu naturaletan dirua gastatzea lehentasunezkoa da neretako.



David Ortega

Ogia eta ortuko produktuak baserri-terrei erosten dizkiet. Erretzeari laga diot eta arropa gutxixeago ere erosten dut, baina jatekoa kalitatezkoa izatea gustatzen zait eta horretan ez diot diruari horrenbeste erreparatzen.



Andoni Rico

Gaszteondako prezioak zenbat eta baxuagoak izan, hobee. Nere gurasoek denda dute eta bertako produktuak kontsumitzen ditugu. Txirindularia naiz eta dieta egokia jarraitzeari begiratzen diot nik gehiago elikagaien jatorriari baino.

Hurrengo alea azaroaren 16an kaleratuko dugu

MAPFRE
SORALUZE ZERBITZUAK S.L.

Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Gotetzez. 5-8. Bidea
20.595 Sorabuz (Gipuzkoa)
Email: ibarzaba55@gmail.com
ainhoa.ibarzakal@gmail.com

Tel: 943 75 16 58
Mugierria: 649 49 79 59
649 75 90 78
Fax: 943 75 16 10

Elizpe
Hertz klinika

Gure zerbitzuak:
- Ortodontizia ikustezina
- Implanteak

DOKIMENKO BERRIKUSKETAK
FINANTZAKETA ZURRI NEURRIA
KONPROMISOARIK GAREKO AURREKONTUA

Tel. 943 75 25 67

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

KM
Desing

Discinua eta Sormena

Poligono Amillaga, n° 5
Tif.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Kirol emaitzak

PELOTA

Xala – Barriola	22
Mtz De Irujo – Laskurain	15
Santamaria – Kortabarria	22
Zubizarreta – Agirresarobe	17
Atxotegi – Aldape	22
Artola – Arratibel	0
Irureta	22
Usurbil	0
Santamaria – Kortabarria	8
Tolosako bikotea	22
Atxotegi – Aldape	22
Etxaniz – Aldalur	7

FUTBOLA

Ilintxa – Sora (Erreg. Pref.)	0-2
Saillkapenean 3.na, 1.etik 2 puntura	
Sora (Erreg.) – Ikasberri	1-2
Saillkapenean 6.na, 1.etik 8 puntura	
Sora (Jub.) – Eibartarrak	3-2
Saillkapenean 5.na, 1.etik 6 puntura	
Sora (Kad.) – Urki	1-4
Saillkapenean 6.na, 1.etik 6 puntura	

Agenda

PELOTA

Barixakua 19, 19:30ean Aranen
 Urkidi – Euskal Jolaseko ordezkaria
 Gallastegi – Zumaiaiko ordezkaria
 Fernandez – Arrasateko ordezkaria
 Tajuelo – Bergarako ordezkaria
 Epelde – Tolosako ordezkaria

Zapatua 20, 11:30ean Aranen
 Santamaria – Kortaberria
 Goierriko bikotea

Atxotegi – Aldape
 Amezketako bikotea

Domeka 30, 11:00etan Usurbilen
 Irureta - Usurbileko ordezkaria

FUTBOLA

Zapatua 20, 17:30ean Ezozin
 Sora (Erreg. Pref.) – Zumaiaiko

Zapatua 20, 12:00etan Elgoibarren
 Elgoibar - (Kad. Mut.)

Domeka 21, 11:30ean Ezozin
 Sora (Kad. Nesk.) – Lagun onak

Zapatua 20, 10:40ean Donostian
 Santa Teresa – Sora (Inf. Mut.)

Zapatua 20, 10:00etan Zestean
 Zestoa – Sora (Inf. Nesk.)

VIII. Antxintxika krosean izena emateko epea zabalik

Soraluze eta Bergara lotzen dituen Antxintxika krosaren zortzigarren edizioa azaroaren 3an jokatu da. Parte hartzaileak Estaziño kaletik abiatuko dira eta Bergarako San Martin plazan bukatuko dute froga. Izen ematea www.kirolprobak.com webgunean egin behar da, urriaren 31a baino lehen.

Herritarrak Arrasate-Oñati lasterketan

Joan den zapatuan jokatu zen 11 kilometroko ibilbidea duen Arrasate-Oñati herri lasterketa. Guztira 245 korrikalarik, tartean lau soraluzetarrek. Hemen sailkapenak:

21. Javier Gonzalez	00:44:55
30. David Rascon	00:46:10
104. Iñaki Arrondo	00:52:38
116. Eduardo Garcia	00:53:43

Bihar izango da Soraluze Futbol Taldearen aurkezpena

2012-2013 denboraldian preferente, erregional, jubeniil, kadete eta infantil mailan lehiatuko duten hamar taldeen aurkezpena egingo du bihar, Soraluze Futbol Elkar-

teko zuzendaritzak. Ekitaldia arratsaldeko 16:45ean hasiko da eta ondoren, 18:30ak inguruan, Sorako Preferenteak Zumaiaiko taldea hartuko du Ezozin.

FotoNotizia



Euripeko Marraskilo Tourra

Eguraldi txarraren ondorioz, espero zena baino parte hartze baxuagoa izan zuen VI. Marraskilo Tourrak. Mendizaleak euripean abiatu ziren Plaza Barritik goizeko 6:00ak aldera eta halaxe egin zituzten ibilbideko 35 kilometroak. Guztira berrogeita hamarren bat mendizalek egin zuten ibilbidea eta ostean elkarrekin bazkaldu zuten frontoian.

Ion Murgizu Pinturak

MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak

Pintura industrialak

T. 943 75 1324 M. 652 777 030

Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Javier Alonso Zelaia

MEDIKU ESTOMATOLOGOA

K.Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

Urriaren 29an Gaztañerre Azoka prestatzeko bilera

Aurtengo Gaztañerre Azoka azaroaren 10ean izango da, eta Gaztañerre Eguna 12an. Azokako postuen kokapenak, ordutegiak eta beste zehazte aldera, urriaren 29an 19:00etan herriko abeltzain, nekazari eta artisauekin batuko da udala.

Egitarauaren aurrerapena

Zapatuan txalaparta adar hotsek azokaren irekiera iradokiko dute. Kukumixoko jolasak eta kale animazioa ez dira faltako. Plaza Zaharreko karpan talo-postua eta herri babajana izango dira, baita Xero Xietterekin erromeria ere. Gazte-txean, herri kirol erakustaldia, desafioa, babajana eta erromeria antolatutako dituzte. Misio Taldeak, bere aldetik, Haitiri laguntzeko goxoak salduko ditu.

Azaroaren 12an Berbalagunek, euskara ikasleek eta Pil-pileaneko lagunek Gaztañerre eguneko afaria egingo dute.

Bi ospakizun nagusi hauez gain, talo ikastaroa (azaroaren 7an, Pil-pileaneko antolatuta), "umeen jangeletako elikadura moduz" jarduteko hitzaldia (Bidetxior Kontsumo Taldea) eta agroekologiari buruzko hizketaldia (Gaztetxea) izango dira.

Egitarau osatua: 



Baserritarrak izango dira protagonista Gaztañerre Azokan.

Haragi gisatu goxoenak lehian



Ixaropena Elkarteko hamasei jubilatuk hartu zuten parte urtero antolatzen duten haragi gisatu txapelketan. Maria Luisa eta Carmen de Castro bikoteak jaso zuten lehen saria, Porfik eta Petrak bigarrena eta Jose Cortesek eta Juaquinek hirugarrena. Ostean prestatutako bazkariak 104 bazkide batu zituen. Jai giro ederra eta parte hartze handia izan zela nabarmendu dute juntako kideek.

Basterretxeak egin du Durangoko Azokako kartela



Nestor Basterretxea euskal artista erreferentearen lan bat izango da Durangoko Azokaren 47. edizioko irudia. Urriaren 2an aurkeztu zuten Durangon bertan abenduaren 6tik 9ra bitartean azoka iragarriko duen horma-irudi berritzailea. Geroz eta gutxiago geratzen da Durangoko Liburu eta Disko Azokaren 47. ediziorako. Geroz eta gutxiago, euskaltzaleon urteroko hitzordurako.

TOKIKOM

Kultur agenda

Gaur, urriak 19

ANTZERKIA

"El amor en tiempos del corralito"
22:15ean, Herriko Antzokian.

Ant: Udaleko Kultura Saila

Urriak 20, zapatua

KALE IKUSKIZUNA

"Exodo"

20:00etan, Zubi Nagusian.

Ant: Udaleko Kultura Sailak eta Galtzagorriak

Urriak 21, domeka

ANTZERKIA

"Auzokideak"

5 urtetik goragoko umeentzat.

18:00etan, Herriko Antzokian

Ant: Udaleko Kultura Saila

Urriak 23, martitzena

HITZALDIA

"Atzerritarrei buruzko legea"

17:00etan, Zinean.

Ant: Udaleko Gizarte Ongizate Saila

Urriak 24, eguaztena

DOKUMENTALA

"El problema. Testimonio del Pueblo Saharaui". 22:15ean, Zinean

Ant: Udaleko Gizarte Ongizate Saila

Urriak 31, eguaztena

DOKUMENTALA

"Barrura begiratzeko leihoak"

22:15ean, Zinean.

Ant: Udaleko Gizarte Ongizate Saila

Urriaren 31ra arte

ARGAZKI ERAKUSKETA

Jon Azofra "Bi baten partez"

Astegunetan, 19:00etatik 20:30era

Zapatu eta jaiegunetan, 12:00etatik

13:30era.

Ant: Kontrargi Argazki Kolektiboa

Zorion agurrak



Zorionak Irune Ariznabarreta!
Urrian 15ian 34 urte.
Etxekuen partez muxu
haundi bat. Eutsi goixari
poxpolin ieuppp!!



Alessia Oliveri
Urrian 22xan 2 urte!
Zorionak printzesa!
Muxu haundi bat Euken
eta etxekuen partez!



Unax Sudupe
Urrian 29xan 7 urte!
Zorionak txapeldun eta
muxu haundi pila
etxekuen partez!



Irati Hernandez
Urrian 14an 5 urtebtxo!
Zorionak sorgintxo!
Patxo haundi bat
etxekuen partez, bereziki
Julenen partez!

Jaiotakoak eta hildakoak



Zilia Aldazabal Maiztegi
Emma Donoso Bouzas
Maren Santiago Iglesias



Placido Manuel Perez Castañeira

Lehiaketa

Zein
da?



Saria:
Munduko ipuinak
batzen dituen jokoak

Aurreko aleko erantzuna

Patricia Borinaga, PSE-EEko zinegotzia.

Irabazlea



Olaia Ballesteros

Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia
etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da.

Deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com** datorren **barixaku eguerdia** baino lehen.





Iturria: Soraluze Gogoan

MARISTEKIN MENDIRA

Erretratu hau 60. hamarkadan jasota, dago, herriko mendigai-
nean. Maristetan ikasten zutenek mendi irteera ugari egiten
zituzten eta hogeita bost ikasleko taldeetan banatuta, mendi

inguruak ezagutzera irteten ziren maiz. Don Anselmo irakaslea-
ren zaintzapean zegoen ikasle talde hau eta bihurri xamarrek
ziren arren, edarto pasatzen zutela dute akorduan.

Ezkerretik eskumara, hauek dira argazkian azaltzen direnak:

Juanjo Legaristi, Ander Epelde, Aitor Unanue, Alberto Ugarte, Txutxin Arizaga †, Aitor Saraizabal †, Alberto Galarraga, Ezekiel Galarraga eta ezezaguna.

Roberto Caninaur, Bonilla, ezezaguna, ezezaguna, Jose Iraeta †, Anton Peñalba, ezezaguna eta Sabin Elizburu.

Moises Arizaga †, Nikanor Iñurrieta, ezezaguna, Roberto Ruiz de la Cuesta, Aitor Lasa, Ignacio Peñalba eta Txema Peñalba.



BEGOÑA ARENAZA LASKURAIN

2011KO URRIAREN 31N
I. URTEURRENA

*“Gurekin zaude nahiz
ta soilik bihotzean,
laister elkartuko gara
izar alaiago batetan”*

Soluzioak
zure esku



BOZKATU  ehbildu

www.ehbildu.net

KONPROMISOA KALITATE TURISTIKOAREKIN

Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromezu Diploma daukate 507 establezimenduk, eta urte amaieran 800 izango dira. Arlo horretan, Praktika Egokien programaren helburua zerbitzuen kudeaketa hobetzea da. Aldi berean, bereziki negozio txikiei zuzenduriko programa da: Kalitate Turistikoaren Q-a ziurtagiriak baino exijentzia maila baxuagoa du, baina epe luzerako konpromezu batekin. "Konpromisoa Kalitate Turistikoaren" ezaugarri-bereizgarriak formazio konpromisua errekonozitzen du, eta dedikazio eta zehaztasuna establezimenduen kudeaketan, kalitatearen hobekuntza planen bidez. Bere helburu nagusia da bezeroarekiko zerbitzuan hobekuntza etengabea izatea.



Idoia Zenikazelaia Zelai Landetxea

Mallabia (Bizkaia)
www.zelai-rural.com

Zeintzuk izan ziren programa honetan parte hartzeko arrazoiak?

Programaren arduradunek deitu egin ziguten, programaren berri eman eta parte hartzeko interesa izango genuen galdezke. Proposamena hobekuntza modura interegarria iruditu zitzaigun eta, horregatik, programarekin bat egitea erabaki genuen.

Ze abantaila ekarri dizkizue diplomak?

Establezimenduaren prestigioari begiratuz gero, jendeak diploma ikusi eta berehala identifikatu egiten du.

Zein arlotan? Zeintzuk izan dira hobekuntzak barne funtzionamenduan, kudeaketan eta azpiegitura gaietan?

Besteak beste, jendeari harrera egokia nola egin eta horrelako beste batzuk ikasi ditugu. Gainera, urtero errebisioa egingo dutenez, horrek hobekuntzari eustea dakar. Eta honetan beharrezan diharduten beste batzuekin hartuemanetan izatea ere beti da lagungarria, batzuek besteen esperientzietatik ikasteko aukera izaten dugulako.

Bezeroaren poztasun mailan zer hobekuntzek eragin dute zuzenean, zure ustez?

Orohar, etortzen zaizkigun bezeroak pozik egoten dira hemen; hala esaten digute, behintzat.



**“Diplomak
landetxeari
prestigioa
ematen dio”**

Nola animatuko zenituzke turismo arloan dihardutenak Kalitate Turistikoaren konpromezua bereizgarria ezartzeko?

Horrelakoetan parte hartzea beti lagungarria gertatzen dela esanez.

Kalitatearen kultura zure erakundeetan bultzatzeko nolako aldaketak sartu dituzu edo sartzeko asmoa duzu?

Lehenagotik ere eskaintzen ditugun guztietan kalitatea zaintzen ahalegintzen ginen, baina programarekin bat egin genuenetik erakundetik kontrol modukoa ere eramaten dute eta hona etortzen zaizkigunak asko laguntzen digute, besteak beste hobetu beharrekoak zeintzuk diren zehazten.

Ze abantaila eskeintzen dizkizue helmuga bereko beste batzuekin elkarlanean jarduteak?(jatetxeak,

ostatuak, turismo aktiboko enpresak, interpretazio zentruak, turismo bulegoak...)?

Nahi eta nahi ez, bilera, ikastaro eta besteetara sarritan elkarrekin joaten garenez, gure esperientziak partekatzeko aukera gehiago daukagu eta geure artean informazioa zabaltzea ere errazagoa da.

Basquetourren eta Jaurlaritzaren aldetik, eskualdeko lehiakortasun teknikoaren bidez jasotako laguntza positiboki baloratuko al zenuke?

Duda barik, oso modu positiboan baloratzen dugu, marka ezaguna da eta, horri esker, norberaren burua ezagutzera ematea askoz ere errazagoa izaten da.

Eusko Jaurlaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetour-ek, enpresariei behar dituzten tresnak eta laguntzak ematen dizkiete euren erakundeak lehiakorragoak izan daitezen, ondorengo programei esker:

Praktika egokien programa: helburua enpresarioen "profesionalizazioa" hobetzea eta helmuga-kontzientzia sortzea da. Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromisoa duten 507 establezimendu daude.

Q Kalitate Turistikoaren programa: bezeroen itxaropenak betetzea eta gogobetetzea bermatzen dituen programa. Euskadin 268 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q-a ziurtagiria.

Bikaintasun ereduaren programa: erakundeek kalitatearekin bikaintasun mailaraino igotzea proposatzen dien programa. Eredu honetan parte hartzen diharduten 14 establezimendu daude Euskadin.

Ezarri Kalitate Turistikoaren Q ziurtagiria zure establezimenduan!

www.basquetour.net
info@basquetour.net

94 607 75 94